

AKHELARREN

(Euskal jostagailua)

Jostarazleak

ZURTZURIGARAI: 40 urthe

GURIA: 18 urthe

BELTZARAN: 48 urthe

MIKOLAS: bizar egilea

ORRO: herriko muthila.

Ohartgarriak — *Bizar egile barne bat nahi da jostagailu huntako, bere mirailekin. Bi kadira. Mahain bat bizar egiteko eta ile mozteko tresna guziekin, bai eta anpoil zenbeitekin.*

ZURTZURIGARAI eta GURIA ederki jauntziak dire; BELTZARAN, langile bat bezala.

ZURTZURIGARAIk bizar eder bat badu, ilerik [ez], GURIAk ile badu bizarrrik ez; BELTZARANek badu ile eta bizar.

(Joseph Maury delakoak egin erdal jostagailu batek gogoratua da eskual jostagailu hau. Bi jostagailuek ikusteko guti dute haatik elgarrekin!)

I

*(Xixtuz, bizar nabalaren xorroxten ari da zirri-zarra MIKOLAS,
ZURTZURIGARAI sartzean)*

ZURTZURIGARAI: Agur

MIKOLAS: Agur, jauna: zer da zure zerbitzuko?

ZURTZURIGARAI: Ez dautzut batere zerbitzurik galdetzen! Ilea bi haixtur ukaldiz behar dauzkidatzu pagamendutan moztu. Ez dut besterik nahi!

MIKOLAS: Ikusten dut zurekin xuxen mintzatu behar dela!

ZURTZURIGARAI: Elhe gutixago hain nahi nuke! Nun behar dut jarri?

MIKOLAS: Eskuineko kadira hortan...

(ZURTZURIGARAI jarri denean, hitzik erran gabe MIKOLASEk bizkarretik ematen dio oihu xuri luze bat gorphutz guzia hartzen diona eta txapela burutik kentzen, itze batean dilindan emateko.)

ZURTZURIGARAI: Norat deramazu txapel hori?

MIKOLAS: Itze hortarat jauna: ez duzu naski nahi txapela buruan duzularik motz detzatzudan ileak?

ZURTZURIGARAI: Mugi zaite bederen hortik!

MIKOLAS: Zer erran dautazu, ilean behar dauzkitzudala moztu?

ZURTZURIGARAI (motz-motza): Baietz!

MIKOLAS (irriz): Ondo bat ez dautzut ikusten!

ZURTZURIGARAI: Aski dituzu bilhatzea! Etzinue naski bat bertzearen ondotik eskuan nik hartu erran dezazudan: huna bat, motz zazu: huna bertzea, motz zazu!

MIKOLAS: Jauna, iduritzen zaut hau ahanzten duzula: ni naizela etxe huntako nausia eta ausartak ez ditudala maite! Ethorri bidetik zoazi! *(Eta mahainaren gainean jarririk, zabaltzen du Eskualduna eta hasten da irakurtzen.)*

ZURTZURIGARAI: Noiz hasi gogo duzu nere ileen moztu?

MIKOLAS: Sortzen direnean...

ZURTZURIGARAI: Nere ileak moztu gogo dituzu ala ez?

MIKOLAS: Sor ditzen nagoela, jaun maitea!

ZURTZURIGARAI: Nahuzu zure trufa zozoak nik lastersko sar arazten dauzkitzudala?

MIKOLAS: Ez ahal nauzu gatzik eta bipherrik gabe janen?

ZURTZURIGARAI: Ez, etzaitut janen, bainan ba pherekaldi bat ederra emanen! (*Hemen, Paulino iduri gure gizona ematen da bi ukabilak gora, MIKOLASi buruz*) Egizu orai bidez erdi!

(*Hainbertzenarekin sartzen da GURIA. Berehala xutiturik, MIKOLASek jar-arazten du bigarren kadiran, ZURTZURIGARAI berean jarri baita*)

II

MIKOLAS: Zer nahi duzu, lephoko ile hori moztea?

GURIA: Lephoa moztea?

MIKOLAS: Ez, lephoa, ez, bainan lepho gaineko ile horiek.

GURIA: Lephoko ileak utziko ditutzu hor!

MIKOLAS: Zer nahi duzu beraz?

GURIA: Bizarra egitea.

MIKOLAS (*hurbildik GURIAri behatu ondoan*): Zuri bizarra egin?

GURIA: Bixta laburtua baduzu, aski ditutzu berinak ematea! Etzinuke gaizki irri eginen, neronek erraten bazautzu: huna ondo bat, huna bertzea! Baduzu bederen bizar nabalik?

MIKOLAS: Eta zuk baduzu bizar ondorik? (*Egundaino bezala mahainean jartzen da MIKOLAS eta berritz zabaltzen du Eskualduna.*)

GURIA: Ba edo ez egin gogo dautazu bizar hau? Zeren behar zaude?

MIKOLAS: Zeren beha nagon? Bizarra sor dakizun...

(*Denbora huntan guzian, ZURTZURIGARAI bati beha, bertzeari behar, ahoa idekitzen zuteneko, artatik sartzen da.*)

ZURTZURIGARAI: Enuen den gutieneko dudarik! Jauna, ez dautzu bizarririk egin nahi zuri, eni doi-doia ez daut ilerik moztu nahi izan! Zer diozu xori hortaz?

GURIA: Den bezalakoak pherekaldi bat ederra merezi lukeela!

ZURTZURIGARAI: Gutik egina du ez baitiat jada eman!

MIKOLAS: Zuen mehatxuek ez dautet odola hainitz itzularazten!

GURIA: Ez othe? Hurbil zaite beraz!

ZURTZURIGARAI: Egizu bidez erdi!

(*Bigak ematen dira xutik ukabilak gora*)

MIKOLAS: Ha, ha, ha, ha! Enuen aspaldi holako zinemarik ikusi etxe huntan!

(*Tralala eta tralala kantuz edanskoa sartzen da BELTZARAN, eta bi ukabilkatiak beren kadiretan jartzen dire lasterka. Mozkor bat bezala gorasko mintzatuko da BELTZARAN. Besoak ibiliz, erhotuak balire bezala elgarrekin ahapetik mintza ditezke orai GURIA eta ZURTZURIGARAI.*)

III

MIKOLAS: To, aspaldiko Beltzaran! Jainkoak igortzen zaitu! Hain xuxen lanik enuen goiz huntan!

BELTZARAN: Bero-beroa heldu nitzautzu, jaun erretorari zaku bat ikatz ereman eta harekin gosaldurik.

MIKOLAS: Jaun erretorarekin gosaldurik?

BELTZARAN: Ez, berarekin, ez, baina gobernantarekin!

MIKOLAS: Eta, futxo, ageri du batere ez duzuela gaizki gosaldurik!

BELTZARAN: Pattarreko, kazkarot olio, orotarik edan dugu eta! Heup!

MIKOLAS: On sakizula, adixkidea. Bainan zer nahi duzu, ile hori moztea ala bizarra egite?

BELTZARAN: Ilea moztea naski lehenik, mamu zenbeit baituket hor alha!

MIKOLAS: Oro kondematuko ditugu hiltzerat lehenik, gero egiteko bizarra!

BELTZARAN: Eta orduan nik iduriko dut izarra! Heup!

MIKOLAS: Jaun auzapezaren alaba bera xoratuko duzu orduan!

BELTZARAN: Heup!

MIKOLAS (*Kadiretarat hurbildurik, polliki*): Jaun hautarik bat othoiztuko dut haatik kiadira huts dezan zu jartzeko!

ZURTZURIGARAI (*oihuka*): Ni bederen enaiz mugituko ilea moztu ez dautzuno!

GURIA: Are gutiago ni bizar hau erori arte!

BELTZARAN: Nik banuke astia, Mikolas!

MIKOLAS (*oihuka*): Nor da etxe huntan nausi? Beltzaran, zuri ba ilea moztuko dautzut eta bizarra eginen, bainan bi ausart hauk doazila nahi duten lekurat!

ZURTZURIGARAI eta GURIA: Ausartak gu?

*(Eta tank xutiturik, berritz ematen dire bigak ukabilak gora;
Beltzaran ere ba heieri buruz, aireari ukabilka, MIKOLASEk besoa
gelditu arte.)*

MIKOLAS: Beletzaran, zerbitzu bat egin behar dautazu, nik ordainez bi pinta arno hoberenetik emanen dauzkitzut!

BELTZARAN: Heup! (*Zartzen dira berritz bertze bigak.*)

MIKOLAS: Badakizu nun egoten den Orro, herriko muthila?

BELTZARAN: Ez dakit ba? Matzo egina daut azken berbala, bederatzi orenak ondoan athe aintzinean "Andre Madalen" kantatu diotalakotz!

MIKOLAS: Errozu berehala hunaraino galdetzen dutala. Zoazi salto batez.

BELTZARAN: Salto batez ez dakit (*salto bat egiten du*) bainan behar diren guziak eginen ditut. Bi pinta arno! Heup! (*Badoa kanporat*)

MIKOLAS (*zarririk daudenetarat hurbildurik*): Eta orai zuen aldi jaunak: segur etzauzte bat eta bertzea atxemanen eguerdik!

ZURTZURIGARAI: Amor ematen duzu beraz azkenean?

GURIA: Ordu zuen!

MIKOLAS: Bada beste zerbait ordu duenik! Leku hau hustu dezazuen! Hortxe baita musde Orro, herriko muthila, ikusiko dugu eian bethi toki berean duzuen birika!

(Sartzen da ORRO. Erran gabe doa, orroaz mintzatuko dela...)

IV

ORRO: Zer da berri etxe huntan?

*(Saltoan xutitzen dire ZURTZURIGARAI eta GURIA, eta badoazi
ORROren alderat; MIKOLAS ere ba.)*

HIRUAK: Zer den berri?

ORRO: Ixilik!... Mintza zaizte bat bertzearen ondotik! (*paper luze bat bai eta alimaleko lapitz bat atheratzen ditu sakelatik*) Nork nahi du lehen mintzatu?

HIRUEK: Nik! Nik! Nik!

ORRO: Nik eta mik, oro ixilik! Bat mintza bedi bakarrik lehen! (*ZURTZURIGARAI erhi puntaz erakutsiz*) Zuk iduri baituzu zaharrena, zu mintza zaite beraz! Gazte hori doala jartzerat! Zu ere ba, Mikolas! Eta batek ez bertzeak ez duzue berritz ahorik idekiko, nik erran arte... (*GURIA badoa bere kasiran jartzerat; MIKOLAS mahainerat. ZURTZURIGARAIri orduan:*) Zure aldi da beraz!

ZURTZURIGARAI: Bi oren handi badu hementxe nagola!

ORRO: Ixilik! Nik ez dautzut galdetzen zenbat denbora duen hemen zarela! Hasteko, zer duzu deithura?

ZURTZURIGARAI: Zurtzurigarai.

ORRO: Zer?

ZURTZURIGARAI: Zur-tzu-ri-ga-rai!

ORRO: Nundik atheratua duzu izen hori? Zurtzurigarai!

ZURTZURIGARAI: Aitak utzia daut...

ORRO: Pentsatzen dut ez duzula Italiako erregeak utzia! Etzaitela herriko muthil batez trufa, xuhur baduzu! (*Lapitzarekin zirri-zarra arizan ondoan*) Eta zure izena?

ZURTZURIGARAI: Kalixtro!

ORRO: He? Ez dut egundaino izen hori aditu! Nor zinuen aitatxi?

ZURTZURIGARAI: Donibane Mendiburutegiko nausia...

ORRO: Errozu Mendiburutegiko nausiari ene partez ez dadiela hura ere herriko muthilez trufa eta, berbal bat nahi ez badu, bertze bat eman dezazun bertze aldian!

ZURTZURIGARAI: Erranen diot segurki.

ORRO: Ixilik! Ez dautzut nik galdetzen erranen diozun ala ez! Bainan zertan zabilta zu etxe huntan?

ZURTZURIGARAI: Ilearn motzarazterat ethorria naiz...

MIKOLAS (*artetik*): Eta ez du ilerik!

ORRO: Ixilik, zu! Hurbil zaite mintzatu behar duzunaz geroz! Zer erran duzu, ilerik ez duela?

MIKOLAS: Ondorik ez du!

ORRO (*orroaz, bi besoak zabaldurik*): Hori da! Etzaio aski nitaz irri egiteko Zurtzurigarai eta Kalixtro deitzea, ilerik ez izanki eta ilearen mozterat behar du oraino Akelarreat ethorri! Nunbeit bada zerbeit!

ZURTZURIGARAI: Deusik ez da nihun!

ORRO: Zer, deusik ez dela nihun?

ZURTZURIGARAI (*bizi-bizia*): Ez du balio hola kexa zaiten! Huna zuri ere zer erraten dautzutan, futxo! Ilearn mozterat ethorri naiz hunat eta enaiz hemendik joanen ilea mozturik baizik!!!

ORRO: Ez joanen? Ez joanen, zu? Ez diozula herriko muthil bati amor emanen? Berbal bat egiten dautzut beraz (*Eta bere lapitza ahoan bustik, mihia kanpoan zirri-zarra hasten da*) Ez duzula amor emanen? Nik erakutsiko dautzut zer den legea!

MIKOLAS: Ederlo egina!

ORRO: Ixilik! Ez dautzut zuri ere galdetzen ongi egina den ala gaizki! Kalixtro Zurtzurigarai, berbal baduzu, zoazi jartzera. (*Hau badoa irriz; gibeletik ORROK*) Irri egiten duzu oraino? Bigarren berbal bat egiten dautzut, herriko muthil batez irri egin duzulakotz! (*Zirri-zarra hasten da berritz*)

ZURTZURIGARAI: Hau bederen ez dut ebatsia!

ORRO: Ixilik! Nik ez dautzut galdetzen ebatsia duzun ala ez! Zoazi lastersko jartzerat! (*ZURTZURIGARAI badoa. Arte horretan GURIA behar baitago, irriz hura ere, ORRO oihuka hasten zaio*) Eta zuk zer duzu zure apho harmatu begiekin neri behatzeko? Hurbil zaite hunat (*Hurbiltzen da GURIA*) Zer dituzu izen deiturak?

GURIA: Anton Guria.

ORRO (*Lapitza ahoan bustirik zirri-zarra*): Nun sortua?

GURIA: Amezpetan.

ORRO: Amezpetan? Etzinen bertze guziak bezala Akelarren sortzen ahal, zu?

GURIA: Nik ez dut naski hortan hobekin:

ORRO: Batere ez dakit! Zertarat ethorria zinen hunat?

GURIA: Bizarraren jaun huni eginarazterat!

MIKOLAS: Eta ez du bizar ondorik!

ORRO: Ixilik, zu! Zer erran duzu ez duela bizar ondorik? Ederki! Zure laguntto horri bezala Anton Guria zuri ere egiten daitzut berbala! Zoazi jartzerat! Eta laster gero!

MIKOLAS: Zer herriko muthila dugun Akhelarren!

ORRO: I-xi-lik, Mikolas, zuk ere berbal bat nahi ez baduzu, herriko muthilari behar gabe denbora galarazirik! Eta errazu, jaun horiek bi oren huntan hemen direnaz geroz eta hortako ethorriak; bati berehala ileamoztuko diozu, bertzeari bizarra eginen! (*ZURTZURIGARAI erakutsiz*) Hunek ez badu ilerik egiozu bizarra. (*GURIA erakutsiz*) Horrek ez badu bizarririk motz ilea! Eta zure onetan mugi hortik. (*Aixtur eta bizar nabalekin MIKOLAS badoa orduan jarriak dauden bi kanpotarretarat. ORRO harat eta hunat abiatuko da, kopeta beltz*)

MIKOLAS: Jaunak, zoinen aldi da beraz?

ZURTZURIGARAI: Ez dugu Guriak eta nik gehiago batere zure beharrik: milesker. (*Eta xutiturik ilea estaltzen dion larru zuri zaharra khentzen du*) Ikhusten duzu?

MIKOLAS: Zer da ixtoria hau?

ORRO (*Tente beha*): Hirugarren berbal baten ondok zabilta?

ZURTZURIGARAI: Batere, Orro! Nere idazlea irriz dagoela ikusten duzu! Bada zeren segurki. Huna nor naizen ni, irakur zazu paper hau! (*paper bat ematen dio eskuetarat eta dal dal dal iharra lotzen zaio ORROri*)

ORRO: Zer etzare Zurtzurigarai Kalistra erran dautazun bezala? Bertze berbal bat eman beharko othe dautzut?

ZURTZURIGARAI: Ez dut uste! Irakur zazu paper hori!

ORRO: Jesu! Maria eta Josepe! Baionako hede xurien aintzindaria! Galdua naiz!

MIKOLAS: Ni ere bai!

ZURTZURIGARAI: Ez bat ez bertzea, adixkideak! Mikolas, nik dautzut zuri barkamendu galdetzen, goizalde guzia hola galarazirik! Baionako herriko muthil on baten bilha nindabilarrik, Orroren fama aditu dut, eta nere begiz ikusi nahi izan dut zer herriko muthil den!

MIKOLAS: Ez ditake hoberik! (*Bertze alderat beha*) Edo tzarragorik!

ZURTZURIGARAI: Ez, ez ditake hoberik! (*Eskua kaxketan ORROk salututzen du aintzandaria*) Hemendik ilhabete bat gabe, aintzinamenduz Baionan izanen da!

MIKOLAS: Ez baititake ohore ttipia Akhellarreko herriarentzat!

ZURTZURIGARAI: Orro, zure emazteari egun berean berri on hori ematen ahalko diozu! Pentsatzeko da haatik azken egun hautan zenbeit berbal eginen duzula oraino Akhellarren! Gu, bagoazi orai! Agur! (*GURIA eta ZURTZUGARAI atheratzen dire, ORRO eskua kaxketan dagoela*)

MIKOLAS: Hau da egun ederra, Orro! Akhabo egungo berbalak!

(*Hainbertzenarekin BELTZARAN sartzen da Andre Madalen kantatuz*)

ORRO: Legea lege da, Mikolas! Huna hemen jada baten bitea! Beltzaran berbalo egiten dautzut mozkorra ibiliki zarelakotz bidean!

BELTZARAN: Eni? Zertako eman dautet edaterat?

ORRO: Nahi duzu bigarren bat?

MIKOLAS: Egundaino egia izanen da beraz, arrain handiek janen dituztela ttipiak! Gaizo, Beltzaran!